

## **2018KO IRAILAREN 17AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2018KO APIRILAREN 16KO, MAIATZAREN 7KO ETA MAIATZAREN 28KO BILKUREN AKTAK).

2.- ZEGAMAKO OSTATUA USTIATZEKO ETA KUDEATZEKO BALDINTZA ERREGULATZAILEEN PLEGUAREN ONARPENA.

3.- 2018KO UDAL AURREKONTUAREN 3. KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.

4.- 11. EREMUKO (OLABERRIA) INDUSKETA SELEKTIBOAREN PLANAREN BARNEAN JASOTAKO LANEN 1 ETA 2 LAN ZIURTAGIRIAK.

5.- 11. EREMUA OLABERRIA II HIRIGINTZA-EGIKARITZEKO KONTZERTAZIO HITZARMENAREN ALDAKETA ONARTZEA.

6.- AGITAX. 2019KO TAXI TARIFAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

7.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

8.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

#### **ZINEGOTZIAK**

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Maitte Rodrigo Albizuri And. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

### **1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2018KO APIRILAREN 16KO, MAIATZAREN 7KO ETA MAIATZAREN 28KO BILKUREN AKTAK).**

Alkateak, 2018ko apirilaren 16ko, maiatzaren 7ko eta maiatzaren 28ko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Maiatzaren 28ko aktari dagokionez, 16. puntua honetan, Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), erromesen aterpeari buruzko gaiari, “dirulaguntza lortzeko prozedurarekin ados egonda ere, Zegaman beste lehentasun batzuk zeudela uste zutela” adierazi zutela esaten du.

Adierazitako zuzenketa jasotzea onartuz, ez da bestelako inolako oharpenik adierazten, eta beraz, oho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

### **2.- ZEGAMAKO OSTATUA USTIAZKEKO ETA KUDEATZEKO BALDINTZA IRREGULATZAILEEN PLEGUAREN ONARPENA.**

Espedientea ikusirik.

Alkateak, “Zegamako Ostatuaren zerbitzua emateko” administrazio-klausula zehatzen eta baldintza teknikoen agiriak azaltzen ditu.

Zentzu horretan prozedura irekiko lehiaketa bidez zerbitzua kontratatzeko prozedura arautzen da, kasu honetan, zerbitzua prestatzen hasteko dagoen beharra adieraziz, presazko izaerarekin bideratuko dela zehaztuz.

Horiek ikusi eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, etorritako kide guztien aldeko botuekin, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Adierazitako agiriak onartzea, eta horien arabera, kontratazio prozedura onartzea.

Bigarrena.- Lehiaketa hau arautuko duten plegu eta agiriak, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman, ohikoak diren hedabideetan, Udaletxeko iragarki oholean eta udaleko web gunean argitaratzea.

### **3.- 2018KO UDAL AURREKONTUAREN 3. KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.**

Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2018-KALD-000003-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru

Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau erabaki du:

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

#### **KREDITU GEHIGARRIAK**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Gehikuntzak</b>
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	12.308,55
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	4.186,41
6	INBERTSIO ERREALAK	16.500,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>32.994,96</b>

#### **FINANTZAKETA**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	32.994,96
<b>GUZTIRA</b>		<b>32.994,96</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

#### **4.- 11. EREMUKO (OLABERRIA) INDUSKETA SELEKTIBOAREN PLANAREN BARNEAN JASOTAKO LANEN 1 ETA 2 LAN ZIURTAGIRIAK.**

Udalbatzarrak, 2017ko azaroaren 27an egin zuen bilkuran, 11. Eremuko (Olaberria) indusketa selektiboaren planaren barnean jasotako lanak burutzea (indusketaren barnean burutu beharreko indusketaren jarraipenaren eta analitiken laguntza teknikoa barne), Lurkide Hondalanak S.L. enpresari esleitzea erabaki zuen, 188.792,90 euro gehi 39.646,51 euro

(BEZ), guztira 228.439,41 eurotan (BEZ barne) eta 14 asteko egite epearekin.

Lurkide Hondalanak S.L. enpresak, lan horien honako lan ziurtagiriak aurkeztu ditu:

- Lehen lan ziurtagiria: 118 faktura zenbakia, 146.229,27 eurokoa (BEZ barne).
- Bigarren lan ziurtagiria: 128 faktura zenbakia, 31.360,44 eurokoa (BEZ barne).

Gastua bideratzeko beharrezkoa den aurrekontu nahikoa jasota dago Udal aurrekontuan, 1.000.601.01.162.10.2017 eta 1.000.643.03.463.00.2016 aurrekontu sailetan.

Fakturak, agiri teknikoak eta burututako lana ikusirik, horiek ontzat emanez, Udaltzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako fakturak onartzea.

Bigarrena.- Fakturaren gastua onartzea, adierazitako aurrekontu sailei egotziz, eta ordainketa bideratzea.

## **5.- 11. EREMUA OLABERRIA II HIRIGINTZA-EGIKARITZEKO KONTZERTAZIO HITZARMENAREN ALDAKETA ONARTZEA.**

Udaltzarrak, 2011ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Ormazpei S.L. enpresak, Zegamako 11. Eremuko-Olaberria II hirigintza garapenerako Udalarekin batera adostu zuen Kontzertazio Hitzarmena onartzea erabaki zuen.

Era berean, Udaltzarrak, 2012ko ekainaren 4an egin zuen bilkuran, 11. Eremua Olaberria II hirigintza-egikaritzeko Kontzertazio Hitzarmenaren aldaketa puntuala onartu zuen. Adierazitako aldaketa 2012ko ekainaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (118 zenbakia), eta erabaki hau behin-betikotzat jo zen, jendaurrean egoteko epearen barnean Udal honetan alegaziorik jasotzen ez zenez.

Eremu horretan aurreikusitako etxebizitza batzuk eraiki ondoren eta aurreikusitako eraikitze datekiko emandako denborazko desfasea kontuan izanik, Alkateak, adierazitako kontzertazio-hitzarmenaren aldaketa aurkezten du bere onarpenerako, espedientean adierazitako arrazoien arabera.

Honela, hitzarmenean seigarren klausula aldatzea proposatzen da, jarraian adierazten den testuarekin:

“SEIGARRENA.- “Zegamako Planeamenduko Arau Subsidiarioen Errebisioaren Testu Bateratuaren Lehenengo Aldaketa Puntuala, Area 11 Olaberria II” dokumentuaren hirigintza fitxan jasotzen den bezala, IV. atalean, Area honetan eraikitzea aurreikusita dauden etxebizitzak salneurri tasatukoak edo Udalarekin adostuak izango dira.

Ondorioz bai Zegamako Udalak eta baita Ormazpei SL merkantilak adosten dute, Bloke 3-ko (Partzela 20.11.3) salmentarako gehiengo salneurriak ondorengoak direla, obrak 2011. urtean hasiko direla aurreikusiz:

- Ereduetxebizitza 84,12 m<sup>2</sup> erabilgarriekin x 2.095 E/m<sup>2</sup> erabilgarriko .....176.231,40 €.
- Ereduetxebizitza 78,72 m<sup>2</sup> erabilgarriekin x 2.160 E/m<sup>2</sup> erabilgarriko.....170.035,20 €.
- Ereduetxebizitza 56,85 m<sup>2</sup> erabilgarriekin x 2.285 E/m<sup>2</sup> erabilgarriko.....129.902,25 €.
- M<sup>2</sup> atikoan teilatu azpiko solairuan, altueran 1,50 m. baino gehiagokoa.....900,00 €/m<sup>2</sup>
- Garaje itxia (14 m<sup>2</sup>-ko azalerakoa).....18.000,00 €.
- M<sup>2</sup> trasteroa sotoko solairuan..... 925,00 €/m<sup>2</sup>
- M<sup>2</sup> terraza beheko solairuko etxebizitzetan.....180,00 €/m<sup>2</sup>

Blokean eraikiko diren gainontzeko etxebizitzaren salmentarako gehiengo salneurriak buruz, Hirigintza Iharduketaren Programan jasotzen den bezala, hasera batean 2011ko Otsailaren 14ko datarekin onartua izan zena, etxebizitzaren hurrengo blokearen eraikuntza 2014. urtean hasiko delarik, unea iristen denean Zegamako Udalarekin adostuko dira adieraziriko salneurriak, merkatuko baldintzak eta etorkizunean izan daitezkeen eraikuntza kostuen igoera kontuan izango direlarik.

Ekainaren 18ko Euskadiko Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen lehen eta hirugarren Xedapen Iragakorretan adierazitakoaren arabera hau ez da ezarriko indarrean sartu aurretik hasitako prozedurei. Era berean, gaia espreski arautzen duen udal araudirik ez dagoenez, adierazitako hirigintza-egikaritzeko Kontzertazio Hitzarmenean (aldatuta) adostutakoa jarraituko da.

Eraikuntzak egiteko aurreikusi ziren daten denborazko desfasea kontuan hartuz (2011-2018) eta kontzertazio hitzarmenean jasotako araubide juridikoa nahikoa ez dela iritziz, Zegamako Udalak eta Ormazpei S.L. adostu dute hitzarmenean jasotakoa ezarri ahal izango dela salmenta prezioen eguneraketei, 2011 urtetik 2018ko uztaila arte iragandako kontsumorako prezioen indizearen arabera. Horrenbestez, Ormazpei S.L.ri baimenduko zaio prezioak adierazitako indizearen arabera eguneratzeko. Eguneraketa hori, lehen blokean saltzean dauden etxebizitzei, bigarren blokean eta hurrengoan eraikiko direnei ezarri ahal izango zaie.

Era berean, adierazitako prezioaren muga hori, lehenengo eskualdaketari ezarriko zaio.”

Aldaketa aztertu eta eztabaidatu ondoren, eta espedientearen jasotako txostenak ikusirik, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, Udalarik dagokio hirigintza-hitzarmenak onartzea.

Horretarako, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da lehenago osorik, eta jendaurrean jarriko da, gutxienez 20 eguneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Hitzarmenaren testua aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udaltzarrak, legez osatzen duten etorritako zazpi kideen aldeko botoekin, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Zegamako Hirigintza Arau Subsidiarioetako 11. Eremua-Olaberria II urbanistikoki egikaritzeko bertako jabeen eta Zegamako Udalaren artean sinatu beharreko Kontzertazio Hitzarmenaren aldaketa, hasierako izaerarekin onartzea.

Bigarrena.- Aldaketaren testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara ematen da eta argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita 20 eguneko epean jendaurrean ipintzen da, alegazioak aurkez ahal daitezten.

Hirugarrena.- Erabaki hau behin-betikotzat joko da, eta hitzarmena behin-betiko onartuta geldituko da, adierazitako jendaurrean egoteko epearen barnean Udal honetan alegaziorik jasotzen ez bada.

Laugarrena.- Udal honetako Alkateari, erabaki honen ondorioz bideratu beharko diren agiri publiko edo pribatuak sinatzeko aginpidea ematea.

Bosgarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

**“ 11. Eremua Olaberria II hirigintza-egikaritzeko Kontzertazio Hitzarmena (aldatua).**

Zegaman 2018ko .....ren .....an

BILDURIK:

ALDE BATETIK:

Edurne Albizu Ormazabal And.

BESTETIK:

Javier Alkorta Aranbarri Jn.

ESKU HARTZEN DUTE:

Edurne Albizu Ormazabal And. Zegamako Udaleko Alkate Lehendakari bezala, 34.091.040A NAN zenbakia duena, ahalmen horrez baliatuta ekintza honetan esku hartzen du, Zegamako Udalak 2011ko maiatzaren 2ko eta 2012ko ekainaren 4ko Udaltzarretan hartutako erabakiaren arabera, eta egintza honetan Zegamako Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea den Igor Alustiza San Vicente jaunak lagundurik, 44.127.889C NAN zenbakia duenak eta egintzaren fede publikoa emateko.

Javier Alkorta Aranbarri Jn. 15.962.923A NAN zenbakia duena, eta Azpeitiako Ubaiar Auzunea 1ean helbidea duena, ORMAIZPEI SL. Merkantilaren izen eta ordekaritzan (B-

206305513 IFK, eta helbidea Azkoitiako San Juan 20-1 Axiri Eraikina delarik).

Dokumentu hau sinatzeko ahalmena du Ormazpei S.L-ren Administrazio Kontseiluko kide bezala.

#### ADIERAZTEN DUTE:

1.- 2010eko urriaren 7ko datarekin (2010eko Azaroaren 2ko, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 209 zenbakia), Gipuzkoako foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Zegamako Planeamenduko Arau Subsidiarioen Errebisioaren Testu Bateratuaren Lehenengo Aldaketa Puntuala, Area 11 Olaberria II buruzkoa, behin betiko onartu zuela.

2.- "Ormazpei SL" merkantila, Area 11 Olaberria II, osatzen duten hirigintza eraikigarritasunaren lurren % 80,31-en jabe dela, gutxi gora behera.

3.- Zegamako Udala, Area 11 Olaberria II, osatzen duten hirigintza eraikigarritasunaren lurren % 19,60-en jabe dela, gutxi gora behera.

4.- Area 11 Olaberria II-ren hirigintza fitxak jasotzen duen bezala, dagoeneko antolamendu xehatuan sartuta dagoenez ez dela beharrezkoa plangintza garapeneko inolako dokumenturik idaztea.

5.- Aipaturiko hirigintza fitxak, Hirigintza Iharduketaren Programa bat egitearen beharra jasotzen duela, Iharduketa Sistema eta Ejekuzio Unitatea zehaztuko dituen.

2010eko otsailaren 14ko datarekin (2011ko martxoaren 2ko, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 41 zenbakia), Zegamako Udalak Area 11 Olaberria II, "Ormazpei SL" merkantilak sustatutako Hirigintza Iharduketaren Programa hasierako izaerarekin onartzea erabaki zuen eta informazio publikorako jartzea, jarduera sistema bezala, konzertazioarena ezarriz eta Ejekuzio unitate bakar bat ezarriz eta Area 11 Olaberria II (U.E.U 11.1)-ren mugaketa osatzen duena.

6.- Adieraziriko Sistemaren gauzatzeko hitzarmen baten sinadura daramala, Euskal Herriko lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legearen 160.2 artikulua aplikatuz, zoluaren % 50,00 baino gehiagoko jabetza duenak, gutxienez Legeak jasotzen dituen konpromezu batzuk bere gain har ditzan, Hitzarmen hau helburu horrekin idazten da, ondorengo puntuetan oinarrituz.

#### ESTIPULAZIOAK

**LEHENA.-** Beheran sinatzen dutenek, ejekuzio unitatearen lur zatiaren %100 ordezkatzen dutelarik, Euskal Herriko lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legearen adieraziriko 160.2 artikulua betez, ondorengo konpromezuak beraien gain hartzen dituzte:

- Beharrezkoa izanez gero, Konzertazio Batzorde bezala eratzea, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak jasotzen duenarekin bat etorriz.

- Aipaturiko Konzertazio Batzordearen bitartez repartzelazio dokumentua eratzea, U.E.U 11.1 Area 11 Olaberria II-ko etekin eta kargen banaketarako.

- Lur eta ondasunen derrigorrezko eta dohako zesioa egitea, ondorengoek ezartzen dituzten baldintzetan, bai Zegamako Planeamenduko Arau Subsidiarioen Errebisioaren Testu Bateratuaren Lehenengo Aldaketa Puntualak, Area 11 Olaberria II-ren hirigintza fitxak, eta baita Zegamako Udalak haserako izaeraz onartu berria duen Hirigintza lharduketaren Programak.

- Hirigintza eta hirigintza obren ejekuzioari dagozkion kargak osotasunean bere gain hartzea, bere egunean idatzi eta onartuko den Hirigintza Proiektuarekin bat etorriz.

**BIGARRENA.-** Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 27.1 artikulua jasotzen duenarekin bat etorriz, azaroaren 28ko 11/2008 Legeak modifikatua, hirigintza ekintzak sortutako plusbalietan Komunitatearen partaidetza aldatzen duelarik eta Udalari bataz besteko hirigintza edifikabilitatea %15-eko derrigorrezko dohako zesioari buruzkoa, urbanizazio kargarik gabe, Sinatzaileek adieraziriko zesioaren %15-ari dagozkien hirigintza eskubideak 380.785,30 Eurotan zebaten dituzte.

**HIRUGARRENA.-** Zegamako Udala, hirigintza edifikabilitate eskubidea duten emaniko bi partzelen - 5 eta 5 a zenbakidunak - jabe den neurrian eta gutxi gora behera %19,69-ko partaidetza kuota bat ordezkatzeko dutelarik, Sinatzaileek, Zegamako Udalaren %19,69-ari dagozkien hirigintza eskubideak 284.960,33 Eurotan zenbatzea adosten dute.

**LAUGARRENA.-** Sinatzaileek adosten dute, Ormazpei SL merkantilak Birpartzelazio Proiektuan Zegamako Udalari esleituko zaion hirigintza eraikigarritasun osoa eskuratzeko konpromesua hartzen duela eta bera ordaintzeko, adieraziko merkantilak legeak ezartzen duena jarraituz Zegamako Udalari ondoren adierazten diren ondasunak emango dizkio:

Partzela 20.11.3:

- Gutxi gora behera 311 m<sup>2</sup>-ko eraikitako lokal bat eta gutxi gora behera 126 m<sup>2</sup>-ko terraza pribatua, biek batera 240.380 euroko balioa dute.

- Eraikitako garaje bat, 18.000 euroko balioa duena.

Partzela 20.11.2:

- Gutxi gora behera 84,76 m<sup>2</sup>-ko eraikitako etxebizitza bat eta 177.572,20 euroko balioa duena.

- Eraikitako garaje bat, 18.000 euroko balioa duena.

- Eraikitako trastero bat, 4.763,75 euroko balioa duena.

Partzela 20.11.1:

- Gutxi gora behera 84,76 m<sup>2</sup>-ko eraikitako etxebizitza bat eta 177.572,20 euroko balioa duena.

- Eraikitako garaje bat, 18.000 euroko balioa duena.



- Eraikitako trastero bat, 4.763,75 euroko balioa duena.

Orain arte adierazitako guztiaz gain, Ormazpei SL merkantilak Zegamako Udalari 6.693,73 euro ordainduko dizkio, ordainketa etxebizitzaren lehenengo blokea eraikitzeke lizentzia ematean egingo delarik.

**BOSGARRENA.-** 11. Eremuko "Olaberria II" garapena bi-familiako partzelatetik hasiko balitz (PR a.40.11.1), Ormazpei S.L.k, Zegamako Udalari Birpartzelazio Proiektuan emango zaion hirigintza eraikigarritasun guztia hartzeko konpromisoa onartzen du, ordainketa jarraian adierazten denaren arabera eginez:

- A.40.11.1 eta a.40.11.2 partzelak eraikitzeke eskaera dagoenean, Ormazpei S.L.k, Zegamako Udalari 20.11.1 partzela eraiki izan balitz jaso beharreko ondasunen balioa ordainduko dio, hirigintza Hitzarmenaren arabera 200.335,95 euro direlarik.

- A.40.11.3 eta a.40.11.4 partzelak eraikitzeke eskaera dagoenean, Ormazpei S.L.k, Zegamako Udalari 20.11.2 partzela eraiki izan balitz jaso beharreko ondasunen balioa ordainduko dio, hirigintza Hitzarmenaren arabera 200.335,95 euro direlarik

- A.40.11.5 eta a.40.11.6 partzelak eraikitzeke eskaera dagoenean, Ormazpei S.L.k, Zegamako Udalari 20.11.3 partzela eraiki izan balitz jaso beharreko ondasunen balioa ordainduko dio, hirigintza Hitzarmenaren arabera 258.380,00 euro direlarik

Era berean, Ormazpei S.L.k, Zegamako Udalari 6.693,73 euro ordainduko dizkio, ordainketa, lehenengo etxebizitza eraikitzeke baimena ematen denean egingo delarik.

Egindako balorazio ekonomikoa eta etxebizitzaren gehienezko salmenta prezioa, bere unean, Zegamako Udalarekin adostuz eguneratuko da.

**SEIGARRENA.-** "Zegamako Planeamenduko Arau Subsidiarioen Errebasioaren Testu Bateratuaren Lehenengo Aldaketa Puntuala, Area 11 Olaberria II" dokumentuaren hirigintza fitxan jasotzen den bezala, IV. atalean, Area honetan eraikitzea aurreikusita dauden etxebizitzak salneurri tasatukoak edo Udalarekin adostuak izango dira.

Ondorioz bai Zegamako Udalak eta baita Ormazpei SL merkantilak adosten dute, Bloke 3-ko (Partzela 20.11.3) salmentarako gehiengo salneurriak ondorengoak direla, obrak 2011. urtean hasiko direla aurreikusiz:

- Ereduetxebizitza 84,12 m<sup>2</sup> erabilgarriekin x 2.095 €/m<sup>2</sup> erabilgarriko .....176.231,40 €.
- Ereduetxebizitza 78,72 m<sup>2</sup> erabilgarriekin x 2.160 €/m<sup>2</sup> erabilgarriko.....170.035,20 €.
- Ereduetxebizitza 56,85 m<sup>2</sup> erabilgarriekin x 2.285 €/m<sup>2</sup> erabilgarriko.....129.902,25 €.
- M<sup>2</sup> atikoan teilatu azpiko solairuan, altueran 1,50 m. baino gehiagokoa.....900,00 €/m<sup>2</sup>
- Garaje itxia (14 m<sup>2</sup>-ko azalerakoa).....18.000,00 €.
- M<sup>2</sup> trasteroa sotoko solairuan..... 925,00 €/m<sup>2</sup>
- M<sup>2</sup> terraza beheko solairuko etxebizitzetan.....180,00 €/m<sup>2</sup>

Blokean eraikiko diren gainontzeko etxebizitzaren salmentarako gehiengo salneurriei buruz, Hirigintza Iharduketaren Programan jasotzen den bezala, hasera batean 2011ko Otsailaren 14ko datarekin onartua izan zena, etxebizitzaren hurrengo blokearen eraikuntza 2014. urtean hasiko delarik, unea iristen denean Zegamako Udalarekin adostuko dira adieraziriko salneurriak, merkatuko baldintzak eta etorkizunean izan daitezkeen eraikuntza kostuen igoera kontuan izango direlarik.

Ekainaren 18ko Euskadiko Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen lehen eta hirugarren Xedapen Iragankorretan adierazitakoaren arabera hau ez da ezarriko indarrean sartu aurretik hasitako prozedurei. Era berean, gaia espreski arautzen duen udal araudirik ez dagoenez, adierazitako hirigintza-egikaritzeko Kontzertazio Hitzarmenean (aldatuta) adostutakoa jarraituko da.

Eraikuntzak egiteko aurreikusi ziren daten denborazko desfasea kontuan hartuz (2011-2018) eta kontzertazio hitzarmenean jasotako araubide juridikoa nahikoa ez dela iritziz, Zegamako Udalak eta Ormazpe S.L. adostu dute hitzarmenean jasotakoa ezarri ahal izango dela salmenta prezioen eguneraketei, 2011 urtetik 2018ko uztaila arte iragandako kontsumorako prezioen indizearen arabera. Horrenbestez, Ormazpe S.L.ri baimenduko zaio prezioak adierazitako indizearen arabera eguneratzeko. Eguneraketa hori, lehen blokean saltzean dauden etxebizitzei, bigarren blokean eta hurrengoan eraikiko direnei ezarri ahal izango zaie.

Era berean, adierazitako prezioaren muga hori, lehenengo eskualdaketari ezarriko zaio.

**ZAZPIGARRENA.-** Zegamako Udalaren jabeakoa den 5. zenbakia duen partzela (2939 zenbakiko erregistro finka) eta bere azalera 2.144,98 m<sup>2</sup> da, agian potentzialki iharduera kutsagarria egon zen kokalekua bezala onartua izan liteke, antzinan bertan sosa kaustiko eta hipoklorito kaltzikoaren ekoizpena egiten zuen lantegi bat kokatu baitzen, gaur egun kamioientzako aparkaleku batez ordezkaturia izan dena.

Eusko Parlamentuko 1/2005 Legean, otsailaren 4.ekoa, 5 eta 29 artikuluetan jasotzen denaren ildotik, zoruaren kutsaduraren prebentzio eta zuzenketarako, egoera honen ondorioz sor daitezkeen gastuak (aurre informeak eta jarduera kutsagaitzak), zoruaren jabearen kontu eta kargura izango dira, Zegamako Udala.

5 a zenbakia duen partzelaren egoerari buruzko planoaren eraberritzea.

**ZORTZIGARRENA.-** Zegamako Udalak konpromezua hartzen du bideratzeko, ahalik eta azkarren, beharrezkoak izango diren hirigintza dokumentu guztiak, bai planeamentu eta baita kudeaketakoak ere, baita baimen prezeptiboak, hitzarmen honen hedukia gauzatu dadin.

**BEDERATZIGARRENA.-** Zazpigarren Xedapen Gehigarria betez, 2/2006 Legearen Zortzigarren puntua, Zegamako Udalak konpromezua hartzen du 20 eguneko epea irekitzeko eta hitzarmen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

**HAMARGARRENA.-** Hitzarmen hau osatua geratuko da, Zegamako Udalak onartu ondoren, bi aldeek Udaleko Idazkariaren aurrean sinatzen dutenean, berau lekuko izanik.

**HAMAIKAGARRENA.-** Hitzarmen hau amaituko da bera gauzatzen denean edo bi aldeetako batek horrela eskatuta, ondorengo arrazoeitako batengatik:

- Agiri honetan jasotzen diren bete beharretakoren bat betetzen ez denean.
- Bi aldeen arteko akordioz.
- Beste edozein arrazoiengatik, indarrean dagoen legearen ezartzearekin bat etorriz.

**HAMABIGARRENA.-** Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du eta bera interpretatetik sor daitezkeen Judizio aurreko arazoak, aldaketa eta erabakiak Udalak berak erabaki beharrekoak izango dira, bere erabakiek bide administratiboari amaiera emango diote eta beraien aurka errekurtso Kontentzioso-Administratiboa egongo da, Kontentzioso-Administratiboko Jurisdikzio Lege Erregulatuarekin bat etorriz.

Hitzarmen honetan jaso gabe gelditzen den guztirako, Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, hirigintza hitzarmenerako adierazten duena ezarriko da.

Eta adostasunaren adierazgarri bezala, hitzarmena bikoiztuta sinatzen dute, baina eragin bakarrarekin, goian jasotzen den leku eta datan.”

## **6.- AGITAX. 2019KO TAXI TARIFAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

AGITAX-ek (Gipuzkoako Taxisten Elkarteak), 2019ko Taxi zerbitzuko tarifak onartzeko eskatuz aurkeztu duen idatziaren berri ematen da.

Zentzu horretan, elkartean egindako azterketa ekonomikoaren arabera, %2,3 igotzea proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, legez osatzen duten bederatzi kideetatik etorritako Zegama Lantzen taldeko lau kideen eta EH Bildu taldeko hiru kideen aldeko botoekin, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- AGITAX-ek (Gipuzkoako Taxisten Elkarteak) egindako proposamena onartzea, eta ondorioz, gaur egun indarrean dauden tarifak % 2,3 igoz, 2019an ezarriko diren Taxi zerbitzuko tarifak honako hauek izango dira:

KONTZEPTUA TARIFA	Abiasaria	KILOMETRO IBILITA	ITXARONALDI ORDUA
TARIFA 1*	3,5949	1,1254	21,4962
TARIFA **	3,5949	1,7949	33,7849

\* Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.

\*\* Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

**Bigarrena.-** Erabaki hau GOIEKlri eta AGITAX-i jakinaraztea.

## 7.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 012/0718 erabakia, uztailaren 20koa, M<sup>a</sup> Asuncion Ureagari, baserriko etxea eraberritzeko baimena emanez.
- 013/0718 erabakia, uztailaren 26koa, 8651 fakturen erlazioa onartuz, guztira 2.533,22 eurokoa.
- 014/0718 erabakia, uztailaren 27koa, 18 fakturen erlazioa (uztaileko fakturak) onartuz, guztira 20.482,46 eurokoa.
- 015/0718 erabakia, uztailaren 30koa, zenbait gizarte zerbitzuen ordainketa bideratuz.
- 016/0718 erabakia, uztailaren 30koa, udal langileen nominen ordainketa bideratuz.
- 017/0718 erabakia, uztailaren 30koa, zenbait fakturen erlazioa onartuz eta ordainketa bideratuz, guztira 17.528,01 eurokoa.
- 01/0818 erabakia, abuztuaren 1ekoa, Ostatura eta Kasinoko ustiapenen fakturak onartuz.
- 02/0818 erabakia, abuztuaren 1ekoa, 8716 fakturen erlazioa onartuz, guztira 20.322,46 eurokoa.
- 03/0818 erabakia, abuztuaren 3koa, egurra ateratzeko mendi bidea erabiltzeko baimena emanez.
- 04/0818 erabakia, abuztuaren 3koa, Pedro Jose Rodrigori, 2017-2018 kontratazioari dagozkion atzerapenak ordaintzea onartuz (273,75 euro).
- 05/0818 erabakia, abuztuaren 7koa, 16 uztaileko 3 fakturen zerrenda onartuz, guztira 32.163,02 eurokoa.
- 06/0818 erabakia, abuztuaren 29koa, Rotex 2012 S.L. enpresaren faktura (260,72 euro) onartuz.
- 07/0818 erabakia, abuztuaren 31koa, udal langileen nominak ordaintzea onartuz.
- 01/0918 erabakia, irailaren 9koa, zenbait gizarte zerbitzuen ordainketa bideratuz.
- 02/0918 erabakia, irailaren 12koa, Excavaciones Gañera S.L. enpresak aurkeztutako faktura onartuz (45.890,78 euro BEZ barne).
- 03/0918 erabakia, irailaren 12koa, Lurkide Hondalanak S.L. enpresak aurkeztutako faktura onartuz (146.229,27 euro BEZ barne).

## 8.- GALDE ERANTZUNAK.

- Alkateak, administrari lanpostua betetzeko bideratzen ari den prozeduraren egoera azaltzen du.

Aztertzeo gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipaturako eguneko arratsaldeko zortziak eta hogeita hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasozazteko, nik egiazaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

### Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasozteko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2018ko .....k .....

**O.E./ V°B°  
ALKATEAK/EL ALCALDE**

### Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2018.

**IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO**